

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

**Gasteizko ikastetxeetan eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko diru-laguntza deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak. 2019-2020 ikasturtea**

#### 1. Deialdiaren xedea

Gasteizko ikastetxeei edo Ikasleen Familien Elkarteei laguntza ekonomikoa ematea da diru-laguntza deialdi honen xedea; hain zuzen ere, 2019-2020 ikasturtean, eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko erraztasunak emate aldera.

#### 2. Norentzat

Betebehar hauek betetzen dituzten ikastetxeek edo Ikasleen Familien Elkarteek (IFE) eskuratu ahal izango dute diru-laguntza:

– Ikastetxea Gasteizko udalerrian kokatua egotea edo, gutxienez, ikasleen ehuneko 60 udalerrian erroldatua egotea.

– Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta eduki.

– Ikastetxea 2019ko irailetik 2020ko ekainera eskola-baratze baten proiektua garatzen aritea, edo garatzeko asmoa izatea, landaketa ekologikoaren alorreko irizpideetan oinarrituta.

– 2019ko irailetik 2020ko ekainera bitartean jarduera horiek egiteak gastuak ekarri izana –fakturen bitartez egiaztatu daitezkeenak–, eskola-baratzearen jarduerari estu-estu lotuak. Honako hauek joko dira eskola-baratzearen jarduerarekin zerikusia duten gastutzat:

– Nekazaritzaren eta basozaintzaren alorreko jarduerari buruzko ikastaro, hitzaldi eta lan-tegien antolakuntza.

– Materialak erostea: lanabesak, eskola-baratzeen egiturak eraikitze materiala, landatzeko mahaiak, landareak, haziak eta nekazaritzaren eta basozaintzaren alorreko bestelako materialak.

– Nekazaritzaren eta basozaintza gaia jorratzen duten dokumentuak –paperezkoak nahiz digitalak– erostea.

– Nekazaritzaren eta basozaintzaren alorreko eremua sortu, mantendu edo hobetzearekin zerikusi zuzena duten obra edo lanak egitea.

– IGiko teknikarien iritziz horien parekotzat jo daitezkeen bestelako gastuak.

– Behar diren argibideak eman beharko dituzte ikastetxeek, baita, beharrezkotzat jotzen bada, IGiko teknikariei bertara sartzen utzi ere, aurkeztu dituzten fakturak eta eskola-baratzeen proiektuetan gauzatutakoak bat datozela egiaztatzerik izan dezaten.

– Ikastetxeek eskabide bakarra aurkeztu ahal dute, dela ikastetxearen izenean, dela bertako ikasleen familien elkartearen izenean.

#### 3. Aurrekontu zuzkidura eta diru-laguntzaren zenbatekoa

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak, gehienez, deialdirako 12.000,00 euroko kreditua erabiliko du 2019-2020 ikasturterako Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren aurrekontuaren 2019/0110.1722.471.02 partidaren kontura, kreditu egokia eta nahikoa egotea xede horretarako gaituta dagoen udal aurrekontu horretan.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak eskola-baratzeetako jarduerak sortutako gastuetarako ikastetxe edo ikasleen guraso elkarte bakoitzari diru-laguntza gisa emango dion kopurua behar bezala justifikatutako gastuaren ehuneko 50ekoa izango da. Ikastetxe edo ikasleen familien elkarte bakoitzeko, diru-laguntza ez da izango, inolaz ere, 1.000 eurotik gorakoa, BEZ barne.

Baldin eta diru-laguntza horietarako dagoen aurrekontuak ez badu aukerarik ematen onartzen diren eskabideetan aurkeztutako gastuen ehuneko 50 estaltzeko, hainbanaketa egingo da, diruz lagundutako ehunekoa murriztuz, harik eta dagoen aurrekontuarekin aurre egin da-kioken kopurura egokitu arte.

#### 4. Eskabidea aurkezteko epea eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskabideak aurkezteko epea oinarri hauen deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratu ondorengo egunean hasiko da, eta 2020ko uztailaren 7a arte.

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko lekua: 2019. urterako Gasteizko Udalaren diru-laguntzetarako deialdia arautzeko oinarri orokorren arabera (eskuragarri daude Udalaren webgunean [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) herritarrei laguntzeko bulegoetan eta 19garren ALHAOn, 2019ko otsailaren 13koan).

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie eskabideei:

– Eskaera ikastetxeko zuzendaritzak edo Guraso Familien presidentek, aurkeztuko du, Vitoria-Gasteizko Udalaren 2019rako diru-laguntzen deialdia arautzen duten oinarri orokorren ereduaren arabera (2019ko otsailaren 13ko 19 zenbakiko ALHAO) eta [www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones](http://www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones) webgunean egongo da eskuragarri.

– Ikastetxean gauzatzen ari den edo gauzatuko den eskola-baratzearen proiektua. Proiektuaren helburuak, metodologia eta jarduerak azaldu beharko dira bertan, zer leku baliatuko diren eskola-baratzea egiteko eta zein beharri erantzungo zaien eskatzen den diru-laguntzarekin.

– Ikasleen Familien elkarten kasuan:

– Ikasleen Familien Elkarte Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

– Deialdian parte hartzeko erabakia jasotzen duen bileraren aktaren fotokopia.

– Deialdi honetarako zuritutako gastuak biltzen dituen kontu-liburuaren kopia.

– Deialdirako eskaera berbera udaleko beste sail edo zerbitzu batzuetan aurkeztu ez izana egiaztatzen duen erantzukizun adierazpena (oinarri espezifikoko hauei erantsitako 1. eranskina).

– Ikastetxea Vitoria-Gasteizko udal-mugartetik kanpo badago, baina ikasleen ehuneko 60 baino gehiago bertan erroldatuta badago, ikastetxeko zuzendaritzak ikasle horien ehunekoari buruzko zinpeko adierazpena aurkeztuko du (oinarri espezifikoko hauei erantsitako 2. eranskina).

– Ingurugiro Gaietarako Ikastegian lehen aldiz diru-laguntza eskatzen bada, edo banku-kontuko zenbakia aldatu bada, banku-erakundeak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horretan, kontuko zenbakia eta titularra (edo titularrak) agertuko da, kontuan hartuta titulartasun hori Ingurugiro Gaietarako Ikastegian ikastetxeak izan behar duela, eta ez pertsona fisiko batek.

– Ingurugiro Gaietarako Ikastegian diru-laguntza lehen aldiz eskatuz gero, identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia aurkeztu behar da.

– Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzeko ziurtatzea.

– Deialdi honetan aurkeztutako zerbitzua gauzatzeko beste administrazio edo erakunde batzuetan diru-laguntzak eskatu edo eskuratu dituzten ikastetxeek hau adierazi beharko dute: zer administrazioan edo erakundetan eskatu duten diru-laguntza, eta, hala badagokio, zer zenbateko jaso duten. Horretarako, aipatu oinarrien I-J eranskina aurkeztuko dute.

– Diru-laguntzetarako aurkezten diren fakturen zerrenda. Fakturek zenbakiak izango dituzte, zerrendan adierazitako zenbakiei jarraikiz. Horretarako, oinarri orokor horien II-J eranskina aurkeztuko da.

– Eskola-baratzeetako jarduerak sortutako gastuen fakturen kopiak aurkeztu beharko dira, jatorrizko fakturekin batera (ondoren, konpultsatu egingo dira).

Diru-laguntzen eskaerak egiteko baldintza guztiak betetzen ez badira edo eskatutako dokumentazioa eransten ez bada, oinarri orokor hauetan adierazitakoa hartuko da kontuan.

### **5. Balorazio-irizpideak**

Jasotako eskabideak aurkezten diren fakturen arabera hartuko dira kontuan, eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako hezkuntza-jardueretara joateko kontzeptua izango dute oinarrian.

### **6. Aurkeztutako agirietako akatsak zuzentzea**

Eskabideak oinarri hauetan xedatutako baldintzak bete ezean, organo eskudunak errekerimendua egingo dio erakunde edo pertsona interesatuari, 10 egun balioduneko epean hutsak zuzen ditzan (epe hori ezin izango dela inolaz ere luzatu ohartarazita). Halaber, ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, beti ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

### **7. Diru-laguntzak emateko prozedura**

Diru-laguntzen emakida prorrata gisa gauzatu da.

Diru-laguntzak jaso ondoren, baldintzak egiaztatu ondoren, eta eskabideak izapidetzeko onartu ondoren, txosten teknikoa eta ebazpen-proposamena igorriko dira, oinarri hauetan ezarritako irizpideekin bat etorritik.

Hala, kide anitzeko eskumeneko organoa eratuko da eskaerak eta emakida-proposamena aintzat hartzeko. Organo horretan, honako hauek egongo dira: Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Lehendakaria, Ikastegiaren Ingurumen Sentzibilizatorako Sailaren burua eta Ikastegiaren Ingurumen Sentzibilizatorako Sailaren teknikari bat.

Era berean, organo izapidegilea Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko Administrazio-kudeaketaren burua izango da, eta datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egingo ditu ofizioz. Datu horien arabera egingo da diru-laguntzak emateko ebazpen-proposamena.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko lehendakariari eskuordetu zaio deialdi honetan araututako dirulaguntzak ebazteko eskumena.

### **8. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea**

2019rako diru-laguntzen deialdiak arautzeko oinarri orokorretan xedatutakoaren arabera (eskuragarri daude Udalaren webgunean –[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)–, herritarrei laguntzeko bulegoetan, eta 2019ko urtarrilaren 132ko ALHAOn – 19. zk. –).

### **9. Diru-laguntza ordaintzea eta justifikatzea**

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak ordainketa bakarrean ordainduko du zenbatekoa. Horretarako, gehienez ere bi hilabe-teko epea izango du dagokion ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Diru-laguntzetarako aurkeztu diren fakturen bitartez egingo da justifikazioa. Eranskinak eta bestelako dokumentazioa ere erabiliko dira justifikazioa egiteko.

## 10. Itzulketa

Vitoria-Gasteizko Udaleko dirulaguntzei buruzko udal-ordenantzen 20. artikuluan zehaztutako egoeraren bat egokituz gero, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, eta, era berean, dirulaguntzaren ordainketa-egunetik aurrera sortutako berandutze-interesak ordaindu beharko dira.

Itzultzeko jardunbidea dirulaguntzei buruzko udal-ordenantza horretan xedatutakoa izango da, onuradunaren jokabideari lotutako arau-haustek eta zehapenak gorabehera.

Jasotako kopuruak eta berandutze-interesak itzultzea bidezkoa bada, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko ES22 2095 0611 06 1090953091 kontuan egingo da. Horretarako, Ingurugiro Gaietarako Ikastegian diru-sarreraren ordainagiria aurkeztuko da.

## 11. Laguntzen bateragarritasuna

Ematen den diru-laguntza bateragarri izango da helburu berarekin beste edozein erakunde publiko edo pribatuk ematen dituztenekin, jardueraren gain-finantziatorik gertatzen ez den bitartean. Halakorik gertatuz gero, murriztu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa, gehieneko mugaraino.

## 12. Onuradunen betebeharrak

– Gasteizko Udalaren Kontu-hartzailetza Nagusiari dagozkion ikuskatzeko eta finantzak fiskalizatzeko lanak onartu eta laguntzea.

– Helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, jakinaraztea.

– Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiari horren berri ematea, nahiz zerbitzu horrek eskatzen duen edozein informazio ematea.

– Diru-laguntzei buruzko udal ordenantzako betebeharrak betetzea.

## 13. Arau-haustek eta isunak

Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak arautzeko Ordenantzan xedatutakora egokituko da arau-hauste eta zigorren erregimena.

## 14. Aplikagarri den legedia

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Gasteizko Udalaren Diru-laguntzei buruzko udal ordenantza aplikatuko da, baita Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta horren araudia ere —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia—, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 25ean

*Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko lehendakaria*  
ANA OREGI BASTARRIKA

## I. ERANSKINA

### GASTEIZKO IKASTETXEETAN ESKOLA-BARATZEEN ALORREKO JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

#### ERANTZUKIZUN ADIERAZPENA

\_\_\_\_\_ jaunak / andreak

—nortasun-agiria: \_\_\_\_\_—, ikastetxe honetako zuzendaria den aldetik:

\_\_\_\_\_

—IFK/IFZ: \_\_\_\_\_ —, helbidea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

#### ADIERAZTEN DU

##### ADIERAZTEN DU

Erantzukizun gisa, eta Gasteizko ikastetxeetan eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko diru-laguntza deialdi honetarako, ordezkatzeko duzun ikastetxeak ez duela diru-laguntzarik eskatu beste sail edo zerbitzu batean.

Jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan,

Vitoria-Gasteizen, 2020ko .....ren .....(e)(a)n

Izen-abizenak  
(Jatorrizko sinadura eta zigilua)

## II. ERANSKINA

### GASTEIZKO IKASTETXEETAN ESKOLA-BARATZEEN ALORREKO JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

#### ERANTZUKIZUN ADIERAZPENA

\_\_\_\_\_ jaunak / andreak

—nortasun-agiria: \_\_\_\_\_ —, ikastetxe honetako ikasleen gurasoen  
elkarteko zuzendariak den aldetik:

\_\_\_\_\_

—IFK/IFZ: \_\_\_\_\_ —, helbidea: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

#### ADIERAZTEN DU

##### ADIERAZTEN DU

Erantzukizun gisa, eta Gasteizko ikastetxeetan eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko diru-laguntza deialdi honetarako, ordezkatzeko duzun ikastetxeko ikasleen % 60 gutxienez Vitoria-Gasteiz udalerrian errolatuta dagoela.

Jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan,

Vitoria-Gasteizen, 2020ko .....aren .....(e)(a)n

(izenpea eta zigilua, jatorrizkoak)